

# Peña Mora Aire-tranbiaren Zamatokia

# Cargadero del Tranvía Aéreo de Peña Mora

Centro de Interpretación Ambiental
PEÑAS NEGRAS
Ingurumen Interpretazioko Zentroa

EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA



Orconeraren hiru kableko aire-tranbia
Tranvía aéreo tricable de Orconera (1910) (Pobeña-Muskiz)

XIX. mendearen amaieran hasi zen Trianoko Mendietako burdina-meatokiaren eskala handiko ustiapena. Mineral gehiena atzerrira esportatu zen, batez ere Ingalaterrara, horregatik, meatzeak itsasoarekin lotu behar izan ziren. Minerala tren-geltokietaraino jaisteko, garraiobide modernoak egin ziren, hala nola aire-tranbiak edo balde-lineak, teleferikoen antzekoak zirenak.

A finales del siglo XIX comenzó la explotación a gran escala de los yacimientos de hierro de los Montes de Triano. La mayor parte del mineral se exportó al extranjero, sobre todo a Inglaterra, por lo que fue necesario conectar las minas con el mar. Para bajar el mineral hasta las estaciones de ferrocarril se construyeron modernos medios de transporte, como los tranvías aéreos o líneas de baldes, que eran similares a teleféricos.



Martínez Rivasen kable bateko aire-tranbia
Tranvía aéreo monocable de Martínez Rivas (Valle de Trápaga-Trapagaran)



Peña Morako aire-tranbiaren zamatokia
Cargadero del tranvía aéreo de Peña Mora

Parkotxa meatzeko aire-tranbia Peña Moratik Trianoko trenbideraino iristen zen, Valle de Trápaga-Trapagarango Elguero auzoraino, alegia. Hiru kableko sistema erabiltzen zuen; hain zuzen ere, baldeak kable bikoitz finko batean zehar lerratzen ziren gurpilen bidez mugitzen ziren, eta beste kable batek mugiarazten zituen. Grabitatez funtzionatzen zuen, beraz, abiarazteko besterik ez zen konektatzen motorra.

El tranvía aéreo de la mina Parcocha iba desde Peña Mora hasta el ferrocarril de Triano, en el barrio de Elguero (Valle de Trápaga-Trapagaran). Utilizaba el sistema tricable, es decir, los baldes se movían gracias a unas ruedas que se deslizaban por un doble cable fijo, mientras otro cable los arrastraba. Funcionaba por gravedad, de modo que el motor sólo se conectaba para iniciar la marcha.

Orconeraren aire-tranbiaren zamatzeko geltokia
Estación de carga del tranvía aéreo de Orconera (1910) (Ortuella)



Baldeak Elgueroko geltokian
Baldes en la estación de Elguero (1953)





Orconeraren aire-tranbiaren baldeak
Baldes del tranvía aéreo de Orconera

Echevarrieta y Larrinaga enpresak egin zuen, 1925 aldera. XX. mendeko 50eko hamarkadan Alemaniako konpainia batek erosi zuen, bertako meatzearekin batera, eta bertan mineral-ikuztegia instalatu zuen (horregatik, Peña Morari Alemaniarren Meatzea ere baderitzo). Produktibitate txikia zuenez, 60ko hamarkadaren hasieran ikuztegia itxi eta aire-tranbia eraitsi egin zuten. Hala ere, bertan dira oraindik ere zamatokiaren abarrak (biltegiak eta kargatzeko atakak) eta zaindariaren etxearen hondakinak.



Peña Morako zamatokia eta aire-tranbiaren zaindariaren etxearen abarrak
Restos del cargadero y de la casa del guarda del tranvía aéreo de Peña Mora

Fue construido por la empresa Echevarrieta y Larrinaga hacia 1925. En los años 50 del siglo XX fue adquirido, junto con la mina existente, por una compañía alemana que instaló un lavadero de mineral (por eso a Peña Mora se le llama también la Mina de los Alemanes). Debido a la baja productividad, el lavadero se cerró a principios de los años 60 y el tranvía aéreo fue desmantelado, aunque todavía pueden verse los restos del cargadero (depósitos y bocas de carga) y las ruinas de la casa del guarda.



Alemaniarren Meatzearen mineral-ikuztegia
Lavadero de mineral de la Mina de los Alemanes

# Nola iritsi • Accesos



Larreinetako funikularra
Funicular de Larreineta



Orconeraren trenaren tunela
Túnel del ferrocarril de Orconera

Valle de Trápaga-Trapagarango igerilekuetan hasten da gorantz doan ibilbidea (zutoin horiak), zamatokiraino iristen dena (ibilbidea egiteko denbora, gutxi gorabehera: ordu 1 eta 30 minutu). Ibilbide horrez gain, honako aukera hauek ere badaude: Barrionuevotik irteten den errepidean barrena jaistea edo Larreinetako atsedenlekutik abiatzea (bi kasu hauetan orduerdi behar da iristeko).

Desde las piscinas de Valle de Trápaga-Trapagaran sube un recorrido (postes de color amarillo) hasta el cargadero (tiempo aproximado: 1 hora y 30 minutos). Otras opciones son: bajar por la carretera que sale de Barrionuevo o desde el área recreativa de Larreineta (en ambos casos se tarda una media hora).



Itsasadarraren bokalea. Lehenengo ikuspegian Valle de Trápaga-Trapagaran
Desembocadura de la Ría. En primer término Valle de Trápaga-Trapagaran

# Kokapen mapa • Mapa de situación




Centro de Interpretación Ambiental
PEÑAS NEGRAS
Ingurumen Interpretazioko Zentroa

La Arboleda-Muskiz basobidea 1,6 km
48530 ORTUELLA (BIZKAIA)
Tfno.: 946 338 097

## Ikurrak / *Signos*

| | | |
|---|---|---|
| Argibidea *Información* | Eliza, ermita *Iglesia, ermita* | Golf zelaia *Campo de golf* |
| Iturria *Fuente* | Aterpe *Albergue* | Zamatokia *Cargadero* |
| Mineral-Ikuztegia *Lavadero de mineral* | Atseden-lekua *Área recreativa* | |